

Euskal AEko ondasunen esportazioak % 14,4 jaitsi ziren 2020ko ekainean

2020ko lehen sei hilabeteetan, esportazioek % 22,9ko atzerapena metatu dute aurreko urtearekin alderatuta

Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 14,4ko beheradaka izan zuten urte arteko tasa nominalean, Eustatek emaniko datuen arabera. Ehuneko horiek, negatiboak badira ere, aurreko hiru hilabeteetan erregistratutakoak baino nabarmen txikiagoak dira (martxoan -% 21,8, apirilean -% 53,2 eta maiatzean -% 36,0). Esportazioen zenbatekoa 1.890,6 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hil bereko 2.209,2 milioien aldean. Ondasun *energetikoen* esportazioak % 48,9 jaitsi ziren, eta *ez-energetikoenak* % 12,1.

Hiru lurraldeek dute joera hori: Gipuzkoan nabarmenagoa da, % 28,0ko atzerakada izan baitu; ondoren, Araban (-% 7,9) eta Bizkaian (-% 6,3). Bizkaiaren kasuan, "Produktu energetikoak" baztertuz gero, % 3,4ko hazkundea lortuko genuke produktu ez-energetikoetan.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2020 Ekaina

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Ekaina			Ekaina		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.209.171	1.890.628	-14,4	1.630.207	1.214.734	-25,5
PRODUKTU ENERGETIKOAK	139.663	71.321	-48,9	346.282	131.476	-62,0
PRODUKTU EZ- ENERGETIKOAK	2.069.508	1.819.307	-12,1	1.283.925	1.083.258	-15,6
URTEKO METATUA	13.054.895	10.061.383	-22,9	10.427.067	7.834.270	-24,9
PRODUKTU ENERGETIKOAK	1.000.354	572.315	-42,8	2.699.088	1.577.068	-41,6
PRODUKTU EZ- ENERGETIKOAK	12.054.541	9.489.068	-21,3	7.727.980	6.257.202	-19,0
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	678.554	624.785	-7,9	370.187	296.224	-20,0
URTEKO METATUA	3.729.612	2.903.545	-22,1	2.175.681	1.695.802	-22,1
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	754.690	707.042	-6,3	908.041	634.360	-30,1
URTEKO METATUA	4.899.473	3.892.833	-20,5	5.995.559	4.382.373	-26,9
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	775.927	558.801	-28,0	351.978	284.150	-19,3
URTEKO METATUA	4.425.810	3.265.005	-26,2	2.255.828	1.756.095	-22,2


Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal AEko **ondasunen inportazioak**, 1.214,7 milioi eurokoak guztira, % 25,5 jaitsi ziren 2019ko ekainaren aldean. Inportazio *energetikoak* % 62,0 jaitsi ziren (-% 36,0 inportatutako tonak kontuan hartuta) eta *ez-energetikoak* % 15,6. Lurraldeka, jaitsierarik handiena Bizkaian izan da, % 30,1; ondoren, Araban (-% 20,0) eta Gipuzkoan (-% 19,3).

Merkataritza-saldoa positiboa izan zen, 675,9 milioi euro ingurukoa. Kopuru horrek esan nahi du merkataritza-superabita % 16,7 hazi dela, aurreko urteko aldi beraren aldean (579,0 milioi). Merkataritza-saldo "ez-energetikoa" soilik aztertuz gero, ikusten da saldo hori ere positiboa izan dela eta 736,1 milioira iritsi dela; beraz, aurreko urtekoarekin alderatuta (785,6 milioi), % 6,3ko jaitsiera izan da.

Esportazioek inportazioen aldean duten **estaldura-tasa** portzentajezko 20,1 puntu igo da, % 135,5etik % 155,6ra. Produktu "ez-energetikoen" tasa bera % 161,2tik % 167,9ra igo da.

Ekainean, hamar herrialdek –Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Italia, Erresuma Batua, Portugal, Belgika, Herbehereak, Polonia eta Suedia– esportazioen % 69,5 bildu dituzte. Gehienak EB-27koak dira. Erakunde horrek, 1.227,1 milioirekin, Euskal AEko ondasunen salmenten % 64,9 biltzen ditu.



Esportazioen sektorekako azterketa (2020ko ekaina)

Jarduera-adarrak (A86) aztertuz gero, ikusten da esportazioek suspertzeko joera dutela aurreko hilabeteekin alderatuta; hala, horietako 15etan –guztira 48 izanik– nolabaiteko hazkunde sendoak erregistratu dira. 10 garrantzitsuenetatik, bi bakarrik igo dira aurreko urteko hilabete beraren aldean: "*Material eta ekipo elektrikoa*", % 4,6 (91,3 milioi 2020ko ekainean); eta "*Kautxuzko produktuak*", % 33,2 (132,7 milioi). Gainerako kasuetan ehunekoak negatiboak dira; muturretan daude "*Paperaren industria*", -% 2,1, eta "*Garraioko beste materiala*", -% 50,2.

Aipatutako kategorien beherakadaz gain, nabarmentzen dira, esportazioen atzerakadaren garrantziagatik, "*Siderurgia*" (-% 37,5 eta 157,5 milioi esportatuak) eta "*Kokeriak eta petrolioaren fintzea*" (-% 40,9 eta 65,1 milioi) adarrak.

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2020ko ekaina

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	2.209.171	1.890.628	100	-14,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	246.044	205.765	10,9	-16,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	108.475	159.204	8,4	46,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	77.699	112.366	5,9	44,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	139.957	110.506	5,8	-21,0
Petrolioaren olio finduak	97.332	50.388	2,7	-48,2
Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	47.273	46.724	2,5	-1,2
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	105.883	40.932	2,2	-61,3
Ekipo elektrogenoak eta bihurtzaile birakari elektrikoak	4.197	31.285	1,7	645,4
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	55.193	29.163	1,5	-47,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	51.578	26.673	1,4	-48,3
Burdina edo altzairuzko gainerako enbusturak	28.598	25.381	1,3	-11,2
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako	22.760	21.975	1,2	-3,4
Okintzako, gozokintzako eta gailuetarako produktuak, barkilloak eta olatak	5.115	21.223	1,1	314,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	30.993	20.901	1,1	-32,6
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	29.857	20.451	1,1	-31,5
Plastikoa garraiatzeko, ontziratze edo itxeko gaiak (poltsak, tapoiak, tapak eta itxeko kapsulak)	2.443	19.129	1,0	683,1
Igoailuak, eskailera mekanikoak, garraiogailuak	19.069	18.968	1,0	-0,5
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	21.288	18.562	1,0	-12,8
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	9.342	17.052	0,9	82,5
Ontziak eta paketatzeko aparatuek garbitzeko, betetzeko, itxeko, etiketatzeko makinak	11.491	16.843	0,9	46,6
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	10.364	16.351	0,9	57,8
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaerako euskarriak	14.872	15.661	0,8	5,3
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	21.068	15.476	0,8	-26,5
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	20.960	15.390	0,8	-26,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	38.768	15.007	0,8	-61,3

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

2020ko ekainean, 25 muga-zergen partida nagusietatik 9k gora egin dute, eta 16k, berriz, behera, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Aldi horretan Euskal AEko esportazioek izan dituzten bi partida garrantzitsuenak "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" eta "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" izan dira. Lehenengoak, 205,8 milioirekin, % 10,9 hartu du hilaren guztizkoan, % 16,4ko jaitsiera izan ondoren; bigarrenak % 46,8ko igoera izan du, eta, kasu horretan, esportatutako 159,2 milioiek delako guztizkoaren % 8,4 hartu dute.

"Kautxuzko pneumatiko berriak" hirugarren postuan daude esportazioen rankingean, % 44,6ko gehikuntza eta 112,4 milioi euroko salmenta-bolumenarekin.

Hurrengo partidak ("ibilgailu automobilaren zatiak eta osagarriak") % 21,0 egin du behera, eta "Petrolioaren olio finduek" % 48,2. Seigarren plazan daude "Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako", zeinak % 1,2 jaitsi diren, eta rankingaren zazpigarren tokian "Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako", % 61,3 jaitsi direnak.

ARABA. 2020ko ekaineko esportazioak

Arabako esportazioek % 7,9 egin dute behera. Hamar partida nagusietatik (guztizkoaren % 75,0), bik bakarrik izan dituzte hazkunde-tasa positiboak; horien artean, automobilaren sektorearekin loturikoa nabarmendu behar da, "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" (% 46,2). Hala ere, sektore bereko beste partida batzuetan jaitsiera nabarmenak izan dira: "ibilgailu automobilaren zati eta osagarriak" (-% 23,5), "Kautxuzko pneumatiko berriak" (-% 15,1) eta "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (-% 17,1) izenekoetan.

**Arabako lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p).
Ekaina 2020**

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	678.554	624.785	100	-7,9
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	242.592	201.186	32,2	-17,1
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	108.402	158.474	25,4	46,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	30.492	25.886	4,1	-15,1
Okintzako, gozogintzako eta gailetagintzako produktuak, barkilloak eta olatak	901	17.461	2,8	1837,1
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	35.091	14.064	2,3	-59,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	18.326	14.019	2,2	-23,5
Ardoa, mahats freskoarena	13.866	12.687	2,0	-8,5
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	10.653	8.602	1,4	-19,2
Lurra, harria edo beste materia mineral solido bat bahetzeko, birrintzeko, oratzeko edo aglomeratzeko makinak	9.887	8.343	1,3	-15,6
Aireontzien parteak	11.124	7.776	1,2	-30,1

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Bizkaia. 2020ko ekaineko esportazioak

Bizkaian esportazioek % 6,3 egin dute behera. Gertakari horri egindako ekarpenik handiena "Petrolioaren olio finduak" partidari biltzen da (-% 48,7 eta 47,2 milioiko jaitsiera); halaber, lagungarri dira horretan "0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak" (-% 34,8 eta 9,0 milioiko atzerakada) eta "ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (-% 13,6 eta 7,4 milioi gutxiago), besteak beste. Nabarmentzekoa da "Kautxuzko pneumatiko berrien" portaera ona, % 82,5eko hazkundearekin (2019ko ekainean baino 38,7 milioi gehiago), eta "Multzo elektrogeno eta bihurtutako birakari elektrikoena" (% 3.003,4), 28,7 milioiko hazkundearekin.

**Bizkaiko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p).
Ekaina 2020**

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	754.690	707.042	100	-6,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	46.920	85.619	12,1	82,5
Petrolioaren olio finduak	97.013	49.810	7,0	-48,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	54.276	46.870	6,6	-13,6
Ekipo elektrogenoak eta bihurtutako birakari elektrikoak	956	29.657	4,2	3003,4
Eskuzko erremintatarako tresna trukagarriak edo makina-erremintatarako	20.609	21.139	3,0	2,6
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	9.342	17.039	2,4	82,4
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak	25.846	16.860	2,4	-34,8
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	17.585	14.807	2,1	-15,8
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	18.296	14.295	2,0	-21,9
Xaflen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	4.826	13.577	1,9	181,3

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Gipuzkoa. 2020ko ekaineko esportazioak

Gipuzkoan ere okerrera egin dute esportazioek hilabeteetan, gainerako lurraldeetan bezala (-% 28,0), baina ez da harritzekoa kontuan hartzen badugu ezen bere hamar partida esportatzaile nagusietatik zortzik atzera egin dutela aurreko urteko hil beraren aldean. Nabarmentzekoak dira honako hauen jaitsierak: "Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako" (-% 61,3 eta -65,0 milioi), "Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen zatiak" (-% 66,3 eta 24,3 milioi gutxiago), "Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak" (-% 48,3 eta -23,5 milioi) eta "ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak" (-% 26,3 eta -17,7 milioi).

Gipuzkoko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Ekaina 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	775.927	558.801	100	-28,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	67.355	49.617	8,9	-26,3
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	105.883	40.932	7,3	-61,3
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	29.757	28.887	5,2	-2,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	48.752	25.222	4,5	-48,3
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	16.834	16.625	3,0	-1,2
Plastikoa garraiatzeko, ontziratze edo ixteko gaiak (poltsak, tapoiak, tapak eta ixteko kapsulak)	907	16.505	3,0	1720,2
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak	9.469	16.414	2,9	73,3
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	36.719	12.380	2,2	-66,3
Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	14.615	11.578	2,1	-20,8
Burdina edo altzairuzko gainerako enbaturak	19.550	11.444	2,0	-41,5

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Urteko metatua (2020ko lehenengo sei hilabeteak): kanpoko merkataritza-saldoak 2.227 milioi euroko superabita du, eta estaldura-tasa % 128,4tan dago

2020ko lehenengo sei hilabeteetan, eta Euskal AEko **esportazioetan**, % 22,9ko jaitsiera izan da aurreko urteko aldi beraren aldean; hau da, 2.993,5 milioi euro gutxiago. Aldi horretan, esportazioen zenbatekoa 10.061,4 milioi euro izan da. Kopuru horri ekarpen handiena egin diona Bizkaia izan da, 3.892,8 milioi eurokin (guztizkoaren % 38,7); ondoren Gipuzkoa dago (3.265,0 milioi) eta, azkenik, Araba (2.903,5 milioi).

Bizkaiko esportazioak % 20,5 jaitsi dira urte arteko tasan (2019an baino 1.006,6 milioi gutxiago). Araban % 22,1 jaitsi dira (826,1 milioi gutxiago) eta Gipuzkoan % 26,2 (1.160,8 milioi gutxiago). Esportaturiko produktu-motari dagokionez, "Produktu ez-energetikoak" dira beharrezkoak handiena izan dutenak, 2.565,5 milioi gutxiagorekin, nahiz eta "energetikoak" ere jaitsi egin diren (-428,0 milioi). 2020ko lehen sei hilabeteetan gehien saldutako hamar produktuak (muga-zergen partidak) 4.040,4 milioi eurokoak dira, guztizkoaren % 40,2. "Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako".

2020ko hilabete hauetako esportazio-rankingaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportaturiko guztizkoaren % 17,1 hartzen baitu. Alemaniaren atzetik, Frantzia (% 15,7), Estatu Batuak (% 7,0) eta Erresuma Batua (% 6,3) daude; horrela, lau herrialdeon artean esportazioen % 46,1 biltzen dituzte.

Inportazioen metatua, Euskal AE osorako, 7.834,3 milioi eurokoa da aipaturiko aldiaren. Kopuru hori urte artean konparatuz gero, ikusten da 2019ko aldi berean erregistratutakoa baino 2.592,8 milioi txikiagoa dela. % 24,9ko jaitsiera hori, hein handi batean, gertatu da izan delako aldi horretan % 26,9ko beherapena Bizkaiko lurraldean (4.382,4 milioi euro balioa duten inportazioekin), hau da, aurreko urteko aldi berean baino 1.613,2 milioi gutxiago. Gipuzkoako inportazioek ere behera egin dute (-% 22,2 eta 499,7 milioi gutxiago), baita Arabakoek ere (-% 22,1 eta -479,9 milioi gutxiago); inportazioen balioa 1.756,1 eta 1.695,8 milioi eurokoa izan da, hurrenez hurren, bi lurralde horietan. "Produktu energetikoen" inportazioa % 41,6 jaitsi da, eta "Produktu ez-energetikoen" % 19,0.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2020ko lehenengo sei hilabeteetan, 2.227,1 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta % 128,4ko aldeko estaldura-tasari eutsi dio.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62